

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

781

AGINDUA, 2017ko otsailaren 1ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzeko dena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.3.a artikuluan xedatutakoa betetzeko eta 6/1989 Lege horren 10.1.c artikulua sail bakoitzari ematen dizkion eskuduntzen arabera, agindu honen eranskinean jasotzen den lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia egitea ebatzi da. Hona hemen:

OINARRI-ARAUAK

Lehengoa.– Aginduaren eranskineko lanpostu hori betetzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten karrerako funtzionarioek eska dezakete agindu honen bidez iragartzen den lanpostua.

Bigarrena.– Parte hartu nahi dutenek Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun balioduneko epean, eta eska bidean datu pertsonalak eta egun lanpostua non duten adierazi beharko dute.

Hirugarrena.– Lehiakideek, eske-idazkiarekin batera, curriculum vitae-a aurkeztu beharko dute, eta datu hauek jaso beharko dituzte:

- a) Titulu akademikoak.
- b) Administrazio publikoan eta enpresa pribatuetan betetako lanpostuak.
- c) Egindako ikasketak eta ikastaroak, hizkuntzak eta adierazi nahi dituzten gainerako merezimendu guztiak.

Gainera eskatutako betekizunak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak ere aurkeztu beharko dituzte lehiakideek, eta egokitzat jotzen dituzten argitalpen, txosten edo bes-telako agiriak ere aurkez ditzakete.

Laugarrena.– Deialdi hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak ebatziko du, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean, eta ebatzeko agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, haren aurka, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ere aurkeztu ahal izango da Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Lehenengo errekurtsioa jartzeko, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera hilabeteko epea izango da; bigarreneko, bi hilekoa.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 1a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

ERANSKINA

Lanpostua:

- Izena: lurralde-ordezkarria (511786 kodea, 6. dotazioa).
- Lekua: Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritza.
- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.
- Herria: Bilbao.
- Taldea: A.
- Kidegoa: X02EU.
- Destino-osagarriaren maila: 29.
- Berariazko osagarria: 0-A.
- Hizkuntza-eskakizuna: 3.
- Derrigortasun-data: 2008-10-31.

Lanpostua betetzeko baldintzak:

- Estatuko edozein administrazio publikotako A kidegokoa izatea.
- Estatuko edozein administrazio publikotako A kidegoan karrerako funtzionario legez jardunean, zerbitzu berezietan edo seme-alabak zaintzeko eszedentzian egotea.

Horietaz aparte, berdin-berdin eskatu ahal izango dute lanpostua, eta horrela jardunbide honen bidez zerbitzura itzuli, lehen adierazitako kidegoetakoek baldin eta nahitaezko eszedentzian, beste administrazio publikoren baten zerbitzuan, borondatezko eszedentzian eta egitekoak utzarazita badaude, egoera horretan eman beharreko denbora bete badute.

- 5 urteko esperientzia, lanpostua atxikita dagoen kidegoak berezkoak dituen egitekoetan.